

URTEKO LAN-PLANA 08-09 Ikasturtea

- 1. SARRERA**
- 2. BERRITZEGUNEKO HELBURU OROKORRAK**
- 3. ANTOLAKETA**
 - a. Berritzeguneko egutegia eta norbanako ordutegiak**
 - b. Lan taldeak eta barne zereginen banaketa**
 - c. Esku hartzeko eredua**
 - d. Ikastetxeetako erreferenteak**
 - e. Batzordeak eta Taldeak**
 - f. Barne prestakuntza**
- 4. ESKU HARTZEA IKASTETXEETAN**
- 5. PRESTAKUNTZA ESKAINTZA**

ERANSKINAK (Paperean eta Intranet edo sarean)

- I. Norbanako ordutegiak**
- II. Barne zereginen banaketa**
- III. Batzordeen urteko planak**
- IV. Ikastetxeen urteko planak**
- V. Taldeen urteko planak**

“La dimensión de apertura e incertidumbre es lo que da sabor al presente y nos permite afrontar el futuro con interés”.

Daniel Innerarity

1. SARRERA:

Ziurgabetasuna, kolokan jartzea, jakin-mina, irekitasuna, malgutasuna, bilaketa... hauek dira, besteak beste, Berrikuntzarekin lotura duten hitz edota kontzeptuak. Gure Hezkuntza sisteman azken urte hauetan ireki berria den hausnarketak horiengan pentsatzera eramaten gaitu, egungo gizartearen ezaugarrien argira hezkuntzaren xedea birplantatzera.

Egia bada ere hezkuntza munduan gabiltzanok beti gaudela gure zeregina berraztertzen gizarteak eta ikasle konkretuek dituzten behar izanei erantzun nahian, 2007ko azaroaren 13an argitaratutako Dekretuan erronka berri bat planteatu zitzaigun, ikasleek oinarrizko kompetentziak garatzekoarena hain zuzen ere.

Kompetentzien garapenaren zerbitzura daude bai Curriculum bera, baita Hezkuntza Sailak 2007-2010 hirurtekorako proposatutako lan ildo eta programak ere. Baina guzti hori hitz hutsetan geldituko litzateke egunerokotasunean ikastetxeetan horiek lantzeko egiten diren ahaleginik gabe. Beraz, ikastetxeetan landu beharreko prozesuei eman nahi diegu garrantzia Berritzegunetik Berrikuntzako urte honetan, ez baitago berrikuntzarik hezkuntzan geletako prozesuetara iristen ez bagara.

Jakin badakigu, hobekuntzak, berrikuntzak hezkuntza sisteman etengabeko prozesu batean lortzen direla, horregatik, presarik gabe, baina proaktiboki eta gelditu gabe, Donostiako Berritzeguneak bere ekarpen propioa egin nahi die Donostiako bailaran kokaturik dauden ikastetxeei.

Joan den urtean hasitakoari jarraipena emango diogu eta urrats bat gehiago eginez, aurten kompetentzietan sakontzeaz gain, hauen ebaluazioan ere zentratuko gara.

Diagnostiko ebaluazioa dela medio, garrantzi berezia emango diogu aurten ebaluatuko diren kompetentzien inguruko hausnarketari, nahiz eta argi dugun kompetentziak ez direla banaka lantzen eta, ondorioz, besteak ere presente izango ditugun..

Bailarako ikastetxeei eta gertuko premiei erantzun nahian, Curriculum eta Diagnostiko Ebaluazioaz gain lehentasuna izango duten gaiak hauexek izango dira: Elkarbizitza, IKT, Kulturartekotasuna eta Hizkuntza Trataera Bateratua.

Etorkizuna hobetzeko ahalegin honetan, ez gara hutsetik abiatzen, aurreko urteetan ere ikastetxeekiko harremanak eta lankidetzak sustatzen aritu gara, eta oraingo hau beste urrats bat besterik ez da izango. Zentzu horretan Berritzeguneak proposatzen duen Urteko Plana hau, ikastetxeek dagoeneko egiten ari diren proiektuen zerbitzura jarri nahi dugu aurten ere.

Hezkuntzaren konplexutasunari ezin diogu sinpleak diren erantzunekin aurre egin. Aipatutako jakin-mina, irekitasuna, malgutasuna, bilaketa, lankidetzak... ezinbestekoak ditugu gure ikasleak gizarte dinamiko batean hiritar aktiboak izateko prestatu nahi baditugu..

2. BERRITZEGUNEKO HELBURU OROKORRAK

Talde eta Batzorde bakoitzak, helburu batzuen lorpena bere gain hartuko baditu ere, funtsezkoa ikusten dugu, Berritzegune bezala norantz goazen proposatzea, beraz, jarraian aipatuko ditugunak, talde, kide eta batzorde guztien zeregina kontsideratzen dugu, elkarlanean lortu beharrekoa.

Bestalde, helburuak lortu ahal izateko jarduera lagungarriak proposatzea erabaki dugu, baita ebaluaziorako adierazle batzuk ere. Aipatzen diren ekintzak taldean eta prozesu baten ondorioz egindako hobekuntza proposamenak dira.

HELBURU OROKORRAK. JARDUERAK. EBALUAZIO ADIERAZLEAK

1.HELBURU OROKORRA	
HEZKUNTZA BERRIKUNTZARAKO AHOALKULARITZA/PRESTAKUNTZA ESKAINI, HEZKUNTZA SAILAK LEHENETSI DITUEN ILDOAK AINTZAT HARTUZ, IKASTETXEEK DITUZTEN BEHARRAK ASETZEKO	
JARDUERAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
1.1 Hurrengo ikasturterako eskaintza egiteko prozesua aholkulari taldeen artean landu, lehentasunak eta osagarritasuna bermatuz.	1.1.1 Talde guztiek egin dute beraien eskaintza Pedagogia Batzordeak proposatutako tresna erabiliz.
1.2 Aurten eta hurrengo bi urtetan ebaluatuko diren konpetentziak kontuan hartu eta ekimenak proposatu (zientifiko eta teknologikoa, soziala eta hiritarra, digitala).	1.2.1 Gai hauekiko ekintzak egin dira edo hurrengo ikasturteko eskaintzan agertzen dira.
1.3 Elkarbizitza, IKT, HTB eta Kulturartekotasunarekin lotura duten proiektuak sustatu, landu eta jarraitu.	1.3.1 Aholkulari erreferentearen esku-hartzeetan gai hauekiko isla jasotzen da.
	1.3.2 Gai hauekiko antolatu diren prestakuntza saioetan geletara eraman daitezkeen proposamenak landu dira.
1.4 Prestakuntza saioetan irakasleek landutakoa ikastetxean zabaltzeko bideak erraztu.	1.4.1 Ikastetxean landutako gaien materialak entregatu dira edo sarean jarri dira.
1.5 Aholkularien prestakuntza sustatu, eskaini behar dugun prestakuntza / aholkularitza kontuan izanda.	1.5.1 Aholkulari guztiek izan dute ikasturtean zehar prestakuntzaren bat jasotzeko aukera.
	1.5.2 Aholkulariek jasotako prestakuntza barne astean sozializatu da edo materialak sarean jarri dira.

2.HELBURU OROKORRA	
AHOLKULARITZA-PRESTAKUNTZA PROZESUAK KONPETENTZIETAN OINARRITUTAKO CURRICULUMEAN ARDAZTU ETA DIAGNOSTIKO EBALUAZIOAN ARRETA BEREZIA IPINI	
JARDUERAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
2.1 Gai honen inguruan proposatzen ditugun ekintzen informazioa bereziki helarazi ikastetxeei.	2.1.1 Ekintzak diseinatu dira. 2.1.2 Ikastetxeen partaidetza %50a baino handiagoa da ikastetxe mota bakoitzean.
2.2 Ikastetxeetan sortzen diren prestakuntza eta aholkularitza berriei erantzuna eman Pedagogia Batzordean aztertu ondoren (mintegiak, moduluak, ikastaroak, proiektuak, eskaera puntualak...)	2.2.1 Pedagogia Batzordean aztertu dira esanguratsuak diren esku-hartzeak. 2.2.2 Ikastetxearen eskaerak onartu direnean, saioak egin dira.
2.3 Konpetentzietan oinarrituz Hezkuntza eta Curriculum proiektuak berregiten lagundu.	2.3.1 Modulu eta mintegietan horretara zuzendutako saioak egin dira.
2.4 Diagnostiko Ebaluazioa ikastetxeetan aurkezteko gutxieneko materiala prestatu eta zabaldu.	2.4.1 Materiala ikastetxeetan azaldu eta banatu da.

3. HELBURU OROKORRA	
BERRITZEGUNEAN DAUDEN TALDEEN ARTEKO ELKARLANA SUSPERTU ZERBITZUAREN KALITATEA BERMATZEKO ETA HOBEKUNTZA EREMUAK ANTZEMATEKO	
JARDUERAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
3.1 Talde desberdinetako barne koordinazioa egin lehenengo bisita prestatzeko eta gidoia egokitzeko, iraileko lehenengo astea barne astea bihurtuz.	3.1.1 Iraileko lehen astea aurreko ikasturtearen bukaeran planifikatua izan da. 3.3.2 Koordinazio bilerak egin dira aste horretan.
3.2 Lanerako adostu ditugun tresnak sarean eskegi eta haien erabilera martxan jarri.	3.2.1 Dokumentuak era antolatuan eskegi dira
3.3 Ikastetxeen inguruan hiruhilabetero egiten diren koordinazio bilerak aztertu, baloratu eta birdiseinatu	3.3.1 Talde bileretan gai honetaz hitz egiteko jarri dira datak. 3.3.2 Bilera bakoitzerako gidoi adostua lortu da.
3.4 Barne ebaluazio orokorrak, eta ikastetxeetako balorazioak ondo aztertu.	3.4.1 Pedagogia Batzordean ebaluazioei buruzko hausnarketa egin da.
4. HELBURU OROKORRA	
IKASTETXEETAN EGITEN DITUGUN JARDUEREN ERAGINA AZTERTU, PROZESUAK HOBETZEKO GUNEAK INDARTUZ.	
JARDUERAK	EBALUAZIO ADIERAZLEAK
4.1 Prestakuntza hartzaileen profila aztertu, jardueren balorazioa egin eta guzti hau kontuan hartu proposamenak egiterakoan.	4.1.1 Modulu/ mintegi/ ikastaroen ebaluazio orrietan aholkulariaren balorazioa dago.
4.2 Prestakuntza eta Berriztapen pedagogikoaren arteko lotura sustatu.	4.2.1 Prestakuntza prozesuen eta berriztapen proiektuen arteko lotura dago.

3. ANTOLAKETA:

A) Berritzeguneko egutegia eta norbanako ordutegiak (Ikus I. Eranskina)

IRAILA (22)						
A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

URRIA (23)						
A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30	31		

AZAROA (20)						
A	A	A	O	O	L	I
					1	2
3	4	5	6	7	8	9
10	11	12	13	14	15	16
17	18	19	20	21	22	23
24	25	26	27	28	29	30

ABENDUA (15)						
A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30	31				

URTARRILA (16)						
A	A	A	O	O	L	I
			1	2	3	4
5	6	7	8	9	10	11
12	13	14	15	16	17	18
19	20	21	22	23	24	25
26	27	28	29	30	31	

OTSAILA (19)						
A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	

MARTXOA (20)						
A	A	A	O	O	L	I
						1
2	3	4	5	6	7	8
9	10	11	12	13	14	15
16	17	18	19	20	21	22
23	24	25	26	27	28	29
30	31					

APIRILA (12)						
A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15	16	17	18	19
20	21	22	23	24	25	26
27	28	29	30			

MAIATZA (20)						
A	A	A	O	O	L	I
				1	2	3
4	5	6	7	8	9	10
11	12	13	14	15	16	17
18	19	20	21	22	23	24
25	26	27	28	29	30	31

EKAINA (22)						
A	A	A	O	O	L	I
1	2	3	4	5	6	7
8	9	10	11	12	13	14
15	16	17	18	19	20	21
22	23	24	25	26	27	28
29	30					

UZTAILA (11)						
A	A	A	O	O	L	I
		1	2	3	4	5
6	7	8	9	10	11	12
13	14	15				

200 EGUN

B) Lan taldeak eta barne zereginen banaketa (Ikus II. Eranskina)

ZUZENDARITZA	
M. Lourdes Iriarte	Zuzendaria
ADMINISTRAZIO TALDEA	
Koro Balerdi	Idazkari-dokumentalista
Rosa Fdez. de Carranza	Idazkaritza
Elvira Correa	Idazkaritza (BAJA)
Manuel Guruceta	Reprografia
HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA ETAPA AHOLKULARIAK	
Lourdes Irastorza	Haur Hezkuntza
Lourdes Dorronsoró	Haur eta Lehen Hezkuntza
Ana Centeno	Lehen Hezkuntza
Luisa García	Lehen Hezkuntza
Ana Extramiana	Lehen Hezkuntza
Elena Sarasa	Lehen hezkuntza
BIGARREN HEZKUNTZA ETAPA AHOLKULARIAK	
Izaskun Egia	Bigarren hezkuntza. Gizarte eta Hizkuntza
Fernando Fouz	Bigarren Hezkuntza. Zientzia eta Teknologia
Iñaki Aduriz	Bigarren Hezkuntza. Gizarte eta Hizkuntza
Aurora Uranga	Bigarren Hezkuntza. Gizarte eta Hizkuntza
HEZKUNTZA PREMIA BEREZIEN AHOLKULARIAK	
Carmen Cuesta	Komunikazioaren ulergarritasuna eta garapena
Rosa Estela	Gizarteratzea
Gema Corta	Gizarteratzea
Coro Agote	Ikasteko gaitasunen garapena
Mari Jose Munduate	Ikasteko gaitasunen garapena
Marisa Rodríguez	Garapenaren nahaste orokorrak
Rosa R. Sierra	Komunikazioaren ulergarritasuna eta garapena
PROGRAMA AHOLKULARIAK	
Jaione Ansola	Hizkuntza Normalkuntza.
Joseba Rodríguez	Informazio eta Komunikazio Teknologiak (IKT)
HHI / EPA AHOLKULARIA	
Higinio Otazu	Helduen Hezkuntza
LOGOPEDAK ETA FISIOTERAPEUTAK	
Mertxe Berdonces	Logopeda
Carmen de María	Logopeda
Mery Fernández	Logopeda
Elena González	Logopeda
Amaia Rivero	Logopeda
Virginia Rikondo	Fisioterapeuta
Maite Tomasena	Fisioterapeuta

C) Interbentzio ereduak:

2008-2009 ikasturteari begira, Berritzeguneko interbentzioa honako bideetatik gauzatuko da:

1.- Hezkuntza Sistemaren kalitatea hobetzeko eta Berrikuntza Pedagogikoa sustatzeko asmoz, ikastetxe, irakasle eta ikasleen inguruan gauzatzen diren prozesuak: aholkularitza eta prestakuntza.

Azpiprozesu dezente daude zeregin hauekin inplikaturik eta neurri ezberdinetan parte hartzen dugu aholkulari ezberdinok nor bere arduren arabera. Hala ere, ikastetxeekiko lankidetzan era koordinatu eta koherente batean gauzatu ahal izateko, ikastetxe bakoitzak aholkulari erreferente bat izango du.

Prozesu hauek esparru ezberdinetan landuko dira:

a) Ikastetxeetan:

- Hezkuntza Sailak egindako deialdien ondorioz (Elkarbizitza, IKT, Kalitatea Hezkuntzan, Kulturartekotasuna, PROA, Prestakuntza eta Hezkuntza Berritzatzeko Proiektuak...): Aholkularitza- Prestakuntza-Jarraipena.
- Ikasturte hasieran erreferente eta ikastetxean parte hartzen duten beste aholkulariek Ikastetxeko arduradunekin adostutako Urteko Planean jasotako aholkularitza, prestakuntza (moduluak).
- Balorazio psiko-pedagogikoak eta ikasleen ikaste-irakaste prozesuak hobetzeko aholkularitza.

b) Berritzegunean:

- Mintegiak.
- Ikastaroak edota jardunaldiak.
- Lan taldeak
- Esperientzi edota materialen aurkezpenak.

Saio hauen zentzua ikastetxeetan gauzatzen diren praktikak, esperientziak, berritzatze prozesuak aberasteko tresnak, baliabideak, marko teorikoak, ereduak eskaintzea da. Beraz, ikastetxeetara zuzentzen den zerbitzua kontsideratzen dugu. Urteko plan honetan egiten den eskaintzaren oinarrian kontutan hartu dira, alde batetik, Hezkuntza Sailak lehenetsi dituen gaiak edota lan ildoak, eta bestetik, ikastetxeek modu batean edo bestean (mintegietan, bileretan, ohiko aholkularitzan, ebaluaketan...) helarazi dizkiguten proposamenak edo beharrak.

Esandakoa kontuan izanda, orain egiten dugun proposamena ez da egitarau itxia, urtean zehar osatzen joango garen eskaintza baizik. Informazio gaurkotua jaso ahal izateko komenigarria da noizean behin www.donosgune.net eta www.berritzeguneak.net web guneak bisitatzea.

c) Hezkuntza Sailak eskatutako kolaborazioetan:

- Prestakuntza alorrean
- Jardunaldien antolaketan.
- ...

d) Beste herri –erakundeekin dugun lankidetzan:

- Haiekiko koordinazioa komunean ditugun lan-guneetan.
- Egindako eskaera puntualei erantzunez egiten direnak.

Aipaturiko esparru guzti hauetan, gure interbentzioa ikasle, irakasle zein ikastetxeen konpetentziak areagotzea izango luke helburu. Proposatzen dugun ereduan ez dugu ikastetxearen

zeregina ordezkatu nahi, ikastetxearen eragile guztien **garapena** bermatu nahiko genuke, honen autonomi maila gero eta handiagoa izan dadin. Eredu hori urrun gelditzen bazaigu ere, horretara zuzenduko ditugu gure ahaleginak, beti ere gurea zerbitzua kontsideratuz eta, honela izanda, ikastetxeek gurekiko lankidetzaren behar edo eskatzen duten neurrian. Marko horretan kokatzen dugu beste erakundeekiko dugun lankidetzaren ere, haiekin batera Hezkuntza Sistemari euskarri eta baliabideak eskaintzea baita gure asmoa.

2.- Berritzeguneko egitura, helburuak, prozedurak, estrategiak, balorazioak egiteko tresnak definitzera eta hobetzera zuzenduak diren interbentzioak.

Arlo honetan zera proposatzen dugu:

- Gure zeregina eta helburuak lortzeko eraginkorra den azpiegitura eraikitzea eta denon partaidetzaz kudeaketa sistema on bat adostea: estrategiak, prozedurak eta tresnak definitzeko bidean urratsak eginez.
- Lehenetsi ditugun gaia edo lan ildoetan eraginkorrak izateko lankidetzaren aritzea. Lehenetsitako gaien inguruko lana bultzatzeko Batzordeak osatuko dira eta horiek izango dira beste aholkulari guztiei gai horren lanketa errazteko baliabideak, pautak eta laguntza eskainiko dietenak.
- Berritzeguneko esku-hartzeen kalitatea eta koherentzia hobetzeko, Berritzegunean ikastetxeen inguruko koordinazio bilerak egitea, Pedagogia Batzordetik bideratuko den lan gidoi bati jarraituz.
- Eskaintzen ditugun jardueren eragina aztertzeke eta prozesuak lantzeko guneak ahalbidetzea.
- Berritzeguneko kideen ahalmenak, interesak, gaitasunak, konpetentzi profesionalak hobetzeko bideak jorratzea.
- Hezkuntza Berrikuntza Zuzendaritzatik proposatutako hiru eremuetan (IKT, Kalitatea eta Normalkuntza) hobekuntzarako urratsak egitea (Ikus IKT, Kudeaketa eta Hizkuntzetako Batzordeen proposamenak)

D) Ikastetxeen aholkulari-erreferenteak

IKASTETXEAK	AHOLKULARI ERREFERENTEAK	E-MAILA	HPBKO AHOLKULARIA
Amara Berri	Lourdes Irastorza	hh@donosgune.net	Coro Agote
Amasorrain Ikastola			Marisa Rodríguez
Ikas-Bide Ikastola			Gema Corta
Mariaren Bihotza Ikastola			Marisa Rodríguez
Loreka			-
Ibai Ikastola	Lourdes Dorronsoro	hh-lh@donosgune.net	Marisa Rodríguez
Igeldo			Marisa Rodríguez
Herri Ametsa Ikastola			Rosa Rodríguez-Sierra
Niño Jesús de Praga			Coro Agote
San Luis La Salle			Rosa Rodríguez-Sierra
Intxaurren Ikastola	Ana Centeno	lh2@donosgune.net	Rosa Estela
Zubieta			Rosa Rodríguez-Sierra
Eskibel			Carmen Cuesta
Sagrado Corazón - Mundaiz			Marisa Rodríguez
Zurriola /Barandiaran Ikastola			Carmen Cuesta
Arantzazuko Ama Ikastola LHI	Ana Extramiana	lhana.e@donosgune.net	Gema Corta
Altza LHI			Mari Jose Munduate

IKASTETXEAK	AHOLKULARI ERREFERENTEAK	E-MAILA	HPBKO AHOLKULARIA
Jakintza Ikastola			Marisa Rodríguez
Sta. Maria - Orixe Ikastola			Rosa Rodríguez-Sierra
San José			Coro Agote
Intxaurren Hegoa			Carmen Cuesta
Zuhaizti			Rosa Estela
Maria Auxiliadora	Lui García	lhui.g@donosgune.net	Marisa Rodríguez
Mary Ward			Coro Agote
La Asunción			Mari Jose Munduate
Catalina de Erauso			Coro Agote
Harri Berri-Oleta	Elena Sarasa	lhelena.s@donosgune.net	Mari Jose Munduate
Herrera			Mari Jose Munduate
Ntra. Sra. de Aránzazu			Rosa Estela
María Reina			Gema Corta
Usandizaga-Peñaflorida-Amara BHI			Coro Agote
Zubiri-Manteo BHI			Rosa Estela
La Salle Loiola	Iñaki Aduriz	gatzelania@donosgune.net	Rosa Rodríguez-Sierra
San Ignacio (Jesuitas)			Mari Jose Munduate
Santa Teresa			Mari Jose Munduate
Altza BHI			Mari Jose Munduate
Antigua BHI			Marisa Rodríguez
Católico Santa María	Izaskun Egia	dbhegia@donosgune.net	Rosa Estela
Compañía de María			Rosa Estela
Santo Tomas Lizeoa			Rosa Rodríguez-Sierra
Musika Eskola			-
Arantzazuko Ama BHI			Gema Corta
Bidebieta BHI			Rosa Rodríguez-Sierra
Easo GLHBI	Fernando Fouz	mateferf@donosgune.net	Rosa Estela
Nazaret			Carmen Cuesta
San Alberto Magno			Coro Agote
Lauaizeta BHI			Carmen Cuesta
La Anunciata			Mari Jose Munduate
Manuel Larramendi	Aurora Uranga	dbhaurora@donosgune.net	Gema Corta
Presentación de María			Gema Corta
The English School			Carmen Cuesta
Axular Lizeoa			Carmen Cuesta
Aitor Ikastola	Jaione Ansola	normalkuntza@donosgune.net	Carmen Cuesta
Belén			Rosa Estela
EPA Zuloaga			-
EPA Herrera			-
CEBAD	Higinio Otazu	epa@donosgune.net	-
IBD-UBI			-
Lurraldeko 13 HHI			-
Mendiola			Rosa Rodríguez-Sierra
AEG	Joseba Rodríguez	ikt@donosgune.net	-
CEBANC-CDEA			-
CEINPRO			-
María Inmaculada	Coro Agote	hpbcoro@donosgune.net	-
Ortzadar CIP			-
EOI/Hizkuntza Eskola Ofiziala	Carmen Cuesta	hpbcarmen@donosgune.net	-
CIP Donostia			-
Aspace			-
Elizarán	Rosa Estela	hpbrosa@donosgune.net	-
Ekintza	Mari Jose Munduate	hpbmjose.m@donosgune.net	Carmen Cuesta
Gautena (Azkarate-Enea)	Marisa Rodríguez	hpbmarisa@donosgune.net	-
San Patricio			Gema Corta
Aransqui	Rosa Rodríguez-Sierra	rosasierra@donosgune.net	-

E) Batzordeak eta Taldeak (Ikus III. eta V. Eranskinak)

Aurten funtzionatuko duten Talde edo Batzordeak hauexek izango dira: Pedagogia Batzordea, Curriculum/Konpetentziak, Elkarbizitza, Kulturartekotasuna, Kudeaketa Sistema, Hizkuntzak, IKT eta Administrazioa.

Bestalde Etapako aholkulariak, Heziketa Premia Berezien aholkulariak eta Programa aholkulariak ere, talde lanean arituko dira egiten den eskaintzaren koherentzia eta koordinazioa bultzatzuz.

F) Barne prestakuntza

Helburu eta Interbentzio ereduaz hitz egin dugunean, denen kompetentziak areagotzeko asmoak azaldu ditugu, eta horretarako ditugun baliabideak, besteak beste, prestakuntza eta lankidetzak dira.

Prestakuntza jasotzeko aholkularitza ezberdinak dituzten aukerak aztertuko dira Pedagogia Batzordean eta oreka mantentzeko proposamenak egingo dira.

Talde bezala zera da proposatzen duguna:

- IKTen inguruko prestakuntzarekin jarraitu. Prestakuntza honek lotura zuzena izango du gure lanak eskatzen dituen trebeziekin eta IKT ikastetxe heldutasun ereduak planteatzen dituen eskaerekin..
- Curriculum edota Hezkuntza Sailak bultzatu nahi dituen ildoekin lotura duten prestakuntza saioetan parte hartuko dugu, batez ere Berritzegunetik lehenetsitako lan eremuekin zerikusirik dutenean.
- Urtean zehar aholkulariei zuzendutako prestakuntza saioen sozializazioa ere aurreikusten dugu.

4. ESKU HARTZEA IKASTETXEETAN

Berritzegunearen esku-hartzea Ikastetxetan zein izango den urteko planetan jasotzen bada ere, azpimarratu nahiko genuke aurten bereziki Hezkuntza Sailak egindako deialdien bidez ikastetxeetan garatzen ari diren proiektuak lehenetsi nahi ditugula. Besteak beste:

- ELKARBIZITZA PLANA (ikastetxe publikoentzat):
 - Bigarren urtea: 5 ikastetxetan (3 HH-LHkoak eta 2 BHkoak)
 - Lehenengo urtea: 3 ikastetxetan (HH-LHkoak)
- IKT HELDUTASUN EREDUA (ikastetxe publikoentzat):
 - Bigarren urtea: 7 ikastetxetan (3 HH-LHkoak eta 4 BHkoak)
 - Lehenengo urtea: 6 ikastetxetan (4 HH-LHkoak eta 2 BHkoak)
- HEZKUNTZAN KALITATEA: Ikastetxe publiko batean (BHkoa)
- PROA:
 - Indartze eta laguntza Proiektua: ikastetxe batean (BH publikoa)
 - Laguntza Proiektua: 4 ikastetxetan (3 HH-LHkoak eta 1 Bhkoa, denak publikoak)
- MUSE proiektua (HH-LH 2 ikastetxe publikotan)
- HBEP / PIEE: (7 BHko ikastetxe publikoetan eta)
- DC: (6 BHko ikastetxe publikoetan eta)
- HIPI: (13 ikastetxe publikoetan eta
- Kulturartekotasunaren sustapena: 3 ikastetxetan (1 BH publikoa eta 2 Itunpekoak)
- Eleaniztasuna: 2 BHko ikastetxe publikoetan
- Zientzia-Hezkuntza proiektua: 2 ikastetxe publikoetan
- Hizkuntza Normalkuntza: 11 ikastetxe publikoetan eta 22 itunpeko ikastetxeetan

(Ikus Prestakuntza eta Berritzapen proiektuen aholkularitza eta moduluen taulak hurrengo atalean, eta Curriculumaren inguruan hitzartutako eskuhartzeen taula)

(Ikus IV. Eranskina: Ikastetxeetako urteko planak).

5. PRESTAKUNTZA ESKAINTZA

08-09 ikasterterako eskaintza gure web orrialdean eskegita dago eta urtean zehar eguneratuko dugu. Jarraian aipatzen dira oraingoz proposatutako ikastaro, mintegi eta moduluak.

IKASTAROAK

IZENBURUA	ARDURADUNA
Konpetentzien ebaluazioa (Neus Sanmartí, IVEI-ISEI)	Gipuzkoako Berritzeguneak
Nola landu konpetentzia digitala: Oinarrizko elementuak eremu ezberdinetan (Victor Bermejo-Ramón Barlán-Felix Santamaría)	Lourdes Iriarte
Europako Erreferentzia Markoa: B1 maila LHn (Antton Peñalba-Gotzone Elu)	Ana Centeno
LH eta BHko HIPI irakasle berriei harrera	Aurora Uranga
ZERBIKAS	Lourdes Iriarte
Hezkuntza Laguntzarako Espezialisten (HLE) eskuhartzea guztiontzako eskolan	HPB aholkulariak
HHI Jardunaldiak Educación de adultos y competencias Curriculum y educación de adultos	Higinio Otazu

MINTEGIAK

Izenburua Título	Arduraduna Responsable
Haur Hezkuntza mintegia: Gaitasunen garapena lan-proiektuen bidez	Lourdes Dorronsoro Lourdes Irastorza
Konpetentzietan ardaztutako LHko curriculum (1.zikloa)	Ana Centeno Ana Extramiana
Konpetentzietan ardaztutako LHko curriculum (2. zikloa)	Lui Garcia Elena Sarasa
Tutoretza Plana LHn curriculum berriaren markoan	Lourdes Dorronsoro
Orientatzaileen mintegia	Marisa Rodriguez
Elkarbizitza Plana Ikastetxeetan	Ana Extramiana
HIPI-Kulturartekotasuna	Aurora Uranga Lui Garcia

Izenburua Título	Arduraduna Responsable
Kulturartekotasuna eta H2 / Interculturalidad y L2	Higinio Otazu
IKT ikastetxe heldutasun eredua	Joseba Rodríguez
Zuzendaritza funtzioa HHI ikastetxeetan / La función directiva en los centros de EPA	Higinio Otazu
Zuzendaritza taldeak: Oinarrizko Hezkuntzarako dekretuari erantzunez	Lourdes Iriarte
HH-LHko zuzendariak	Lourdes Iriarte
Hezkuntza premia bereziak guztiontzako eskolan	HPB aholkulariak
Hizkuntza Normalkuntza	Jaione Ansola

MODULUAK

Ikastetxeetan egiten diren prestakuntza saioak, batzuk, prestakuntza-berriztatze proiektuen deialdian eskatutakoak (Ikus proiektuen zerrenda) eta besteak, deialditik kanpo eskatu zaizkigunak.

LAN ILDOA	IZENBURUA	IKASTETXEA
110	Guztiok bane hartzen dituen eskolaren eraikuntza, ikasteko harresiak suntsituz (A modulua)	
121	Kultura arteko hezkuntza (A modulua)	
211	Kalitatea Hezkuntzan (A modulua)	
221	Osasuntsu bizi eta elkarbizitzeko hezitzea. (A modulua)	Mendiola LH
310	Curriculum Berria eta Konpetentziak: Lehenengo Hurbilpena (B modulua)	Ikus azken taula
310	Konpetentziak-Metodologia-Ebaluazioa (B modulua)	Ikus azken taula
310	Konpetentzia digitala lantzeko lehen urratsak (B modulua)	Ikus azken taula
310	Educación de adultos y competencias (B modulua)	
340	Normalkuntza, Eleaniztasuna, Hizkuntzen Integrazioa, Hizkuntza Proiektua... hizkuntzak, hizkuntzak, hizkuntzak... erotu al gara? (A modulua)	
341	Hizkuntza Trataera Bateratua eta Hizkuntza Proiektua (B modulua)	Ikus azken taula

PRESTAKUNTZA ETA HEZKUNTZA BERRIZTATZE PROIEKTUAK

Prestakuntza-berriztatze proiektuak eskatzeko deialdiaren ondorioz, Donostialdean garatuko diren proiektuak. Berritzeguneak proiektu guzti hauen jarraipena egiteko konpromezua du. Horrez gain, kasu batzuetan eskuhartze zuzena du, prestakuntza moduluen bidez, nahiz mintegi edo lan taldeen bidez.

IKASTETXEA	KODEA	PROIEKTU MOTA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	BG-KO ESKUHARTZEA
ITUNPEKO IKASTETXEAK				
CPEIPS STO. TOMAS LIZEOA HLBHIP	12370			
		Act. B	Haur Hezkuntzako metodologia bateratzea	Aholkularitza
		Act. B	Bigarren Hezkuntzan irakurketa liburuaren lanketa bateratzea.	Prestakuntza
		Act. B	Bigarren Hezkuntzako Ingelesa eta Gaztelanian ebaluazio sistemaren koherentzia lantzea.	Aholkularitza / Prestakuntza
		Act. B	Batxilergoko Euskal Hizkuntza eta Literatura programa berrikustea	
CPES NAZARET BHIP	12490			
		Acc. In..	Hacia la igualdad de genero: un modelo a traves de las TICs	
CPEE AZCARATE ENEA HBIP	12495			
		Acc. In..	Actualización del currículo para alumnado con TEA, basado en las habilidades adaptativas	
CPEIPS BELEN HLBHIP	12503			
		Act. B	Haur hezkuntzako trebakuntzarako egitasmoa	Prestakuntza
		Act. B	Hizkuntz Proiektua	
		Acc. In..	Hizkuntzen Trataera Bateratua: programak sortutako unitate didaktikoen erabilera ikasgelan.	Prestakuntza
		Acc. In..	Educación afectivo-sexual	
		Acc. In..	Taller de cine como un espacio de paz	
CPEIPS MARY WARD HLBHIP	12504			
		Act. B	Konpetentziak, metodologia, ebaluazioa	Prestakuntza
		Acc. In..	Aprendizaje del alemán mediante actividades ludicas 2	Prestakuntza
		Acc. In..	Descubriendo las microestructuras ii	
		Acc. In..	Aprendizaje alemán mediante proyectos	Prestakuntza

IKASTETXEA	KODEA	PROIEKTU MOTA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	BG-KO ESKUHARTZEA
CATOLICO STA. MARIA HLBHIP	12505			
		Act. B	Haur Hezkuntzako eskola berria sortzen	Prestakuntza
CPEIPS COMPAÑIA DE MARIA HLBHIP	12506			
		Act. B	Haur Hezkuntzako eskola berria sortzen	Prestakuntza
		Acc. In..	Hizkuntzen Portfolio Europarra: Hizkuntzak ikasteko norberaren ebaluazioa tresna.	Aholkularitza / Prestakuntza
CPEIPS ESKIBEL HLBHIP	12507			
		Act. B	Competencias básicas y nuevo currículo	
		Act. B	Bases para la elaboración del plan de convivencia del centro	Aholkularitza mintegiaren bidez
		Act. B	Elaboración del plan de acción tutorial	
CPEIPS LA ANUNCIATA HLBHIP	12512			
		Acc. In..	Los microorganismos: ¿nuestros aliados? O ¿nuestros enemigos	
		Acc. In..	Zientziak-informatika-orientabidea	
CPEIPS LA ASUNCION HLBHIP	12513			
		Act. B	Konpetentziak - metodologia - ebaluazioa	Prestakuntza
		Acc. In..	Proyecto lingüístico de centro	Prestakuntza
CPEIPS LA SALLE HLBHIP	12514			
		Act. B	Prebentzio Programa Drogomenpekotasun arloan	
		Act. B	Klaseko programazioa LOEren arabera	
		Act. B	Disfuntzioak portaeretan eta adimen emozionala	
		Acc. In..	DBH rako metodologi esparru berria (jarraipena DBH 2n)	
CPEIPS MARIA AUXILIADORA HLBHIP	12516			
		Act. B	Konpetentziak-metodologia-ebaluzioa	Prestakuntza
		Acc. In..	Ikus-entzunezko tailerra	
CPEIPS MANUEL DE LARRAMENDI	12518			
		Acc. In..	Ingelesaren erabilera gizarte zientzian	
		Acc. In..	Kulturarteko hezkuntza	Prestakuntza
CPEIPS MARIA REINA HLBHIP	12519			
		Act. B	"Sensibilizacion basica en inteligencia emocional y desarrollo de competencias emocionales"	

IKASTETXEA	KODEA	PROIEKTU MOTA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	BG-KO ESKUHARTZEA
		Act. B	"Amara Berri sistema ikastetxean"	
PRESENTACION DE MARIA HLBHIP	12532			
		Act. B	Elaboración de un proyecto lingüístico en un centro intercultural de eso	
		Act. B	Los proyectos de aula como alternativa para un cambio metodológico en todo el centro.	
		Acc. In..	Paz, respeto y convivencia en toda la comunidad educativa. Intervención en infantil y primaria	
		Acc. In..	Paz, respeto y convivencia en toda la comunidad educativa. Intervención en secundaria	
CPEIPS SAN ALBERTO MAGNO	12536			
		Acc. In..	Laboratorio de física : Estudio del electromagnetismo y de las ondas	
		Acc. In..	T.I.L / H.T.B	Prestakuntza
CPEIPS SAN IGNACIO DE LOYOLA	12537			
		Act. B	Tratamiento integrado de lenguas en el Primer Ciclo de Primaria	Prestakuntza
CPEIP SAN JOSE (ESCUELA ASILO)	12540			
		Act. B	Konpetentziak - metodologia - ebaluazioa	Prestakuntza
CPEIPS SAN LUIS-LA SALLE HLBHIP	12542			
		Acc. In..	Zabaltze Gela - Aula de Ampliación	
		Acc. In..	Una experiencia de Aprendizaje Cooperativo a través de Proyectos de Investigación	
SAN MIGUEL-FUNDACION VDA. ELIZARAN BHIP	12544			
		Acc. In..	La mar de imágenes para la vida	
CPEIPS SAN PATRICIO HLBHIP	12545			
		Act. B	3.Hizkuntza-Komunikaziorako gaitasuna LHn. Hizkuntza Trataera Bateratua eta ikuspegi komunikatiboa.	Prestakuntza
		Act. B	Euskararen irakaskuntzaren hobekuntza plana	

IKASTETXEA	KODEA	PROIEKTU MOTA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	BG-KO ESKUHARTZEA
		Acc. In..	Adquisición de competencias y valores para la vida. Modelo de Pentacidad	
CPEIPS STA. TERESA HLBHIP	12547			
		Act. B	Hizkuntza trataera bateratua eta hizkuntza proiektua	Prestakuntza
CPEIPS INGLES HLBHIP	12550			
		Act. B	Detección y prevención através del juego psicomotor	
		Act. B	Competencias, metodología y evaluación diagnóstica	Prestakuntza
		Act. B	Euskararen irakaskuntzaren hobekuntza	
		Acc. In..	Organización de patios. Educación infantil y primaria	
IKASTETXE PUBLIKOAK				
CEP AMARA-BERRI LHI	12184			
		Act. B	Amara Berri Sistema Curriculum berriaren harian: Lehen Hezkuntza	
		Act. B	Amara Berri Sistema Curriculum berriaren harian: Haur Hezkuntza	
		Act. B	2007ko matematika curriculumaren ezarpena	Prestakuntza
		Acc. In..	Ebaluazioa eta komunikazioa intraneten bidez	
		Acc. In..	Tutoretza prozesuak eta jangela garaian esku-hartzea	
CEP MENDIOLA LHI	12185			
		Act. A	Educar para vivir y convivir saludablemente	Prestakuntza
CEP CATALINA DE ERAUSO LHI	12186			
		Acc. In..	Asmakilo	Aholkularitza
		Acc. In..	Kutxa ibiltaria	Aholkularitza / Prestakuntza
CEP HERRERA LHI	12188			
		Act. B	Konpetenziak- Metodologia- Ebaluazioa	Prestakuntza
		Acc. In..	Asmakilo	Aholkularitza
		Acc. In..	Kutxa ibiltaria	Aholkularitza / Prestakuntza
CEP IGELDO LHI	12214			
		Act. B	Konpetentziak, metodologia, ebaluaketa	Prestakuntza

IKASTETXEA	KODEA	PROIEKTU MOTA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	BG-KO ESKUHARTZEA
		Act. B	Eskola txikiak: adin aniztasuna gelan (jarraipena)	
CEP ZUBIETA LHI	12219			
		Acc. In..	Adin ezberdinetako ikasleak gelan	
IES ALTZA BHI	12224			
		Act. B	Gelan irakasleen gaitasun digitalak sakontzea	Aholkularitza
CEP AITOR IKASTOLA LHI	12358			
		Acc. In..	Proiektu telematikoa ikastolan: asmakiloa	Aholkularitza
CEP AMASORRAIN IKASTOLA LHI	12359			
		Act. B	Diagnostiko ebaluazioa	Prestakuntza
		Acc. In..	Haur Hezkuntza eta Lehen Hezkuntza proiektu telematikoak	Aholkularitza
ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA LHI	12360			
		Act. B	Konpetentziak-metodologia-ebaluazioa	Prestakuntza
		Acc. In..	Proiektu telematikoak lehen hezkuntzako 1.zikloan	Aholkularitza
CEP IKAS-BIDE IKASTOLA LHI	12366			
		Act. B	Konpetentziak-metodologia-ebaluazioa ikasbide ikastolan	Prestakuntza
		Acc. In..	1. Kirol-ekintza pedagogikoen multzoa, lehen hezkuntzako ikasleen oinarritzko gaitasunen garailea.	
		Acc. In..	Sendien partaidetza ikastolako egunerokotasunean sustatu tailerren bidez	
CEP INTXAURRONDO IKASTOLA LHI	12367			
		Act. B	Gelako talde dinamikak ikastetxeko esparruan	
		Acc. In..	Pelutxeak	Aholkularitza
		Acc. In..	Asmakilo	Aholkularitza
STA. MARIA-ORIXE IKASTOLA LHI	12371			
		Act. B	konpetentziak oinarritzko hezkuntzan	
		Act. B	Heziketa-prozesua XXI. mendeko eskolan. (¿Cómo educar en la escuela del s. XXI?)	
		Pr. Glob..	Orixe ikastolako hezkuntza-komunitatea: heziketa eredu berritzailea XXI. mendeko ikastetxerako	

IKASTETXEA	KODEA	PROIEKTU MOTA	PROIEKTUAREN IZENBURUA	BG-KO ESKUHARTZEA
IES ARANTZAZUKO AMA BHI	12960			
		Act. B	Prebentzio eta detekziorako sentzibilitate eta formazio programa	
		Act. B	Irrati saioak, antzerki bideoak eta ikastetxeko Web orrialdea garatzeko Proiektua	
IES XABIER ZUBIRI-MANTEO BHI	12982			
		Act. B	Formación básica en el aula basada en las nuevas tecnologías: Software Libre	
		Acc. In..	Mundu Garaikiderako Zientzak ikasgaiari erantzun nahian	
		Acc. In..	Zubiri-Manteoko ikasleen hizkuntzen karpeta	
CEP INTXAURRONDO HEGOA LHI	13079			
		Act. B	Konpetentziak, metodologia eta ebaluazioa	Prestakuntza
		Act. B	"Elkarreragin pedagogiko eta tutoriala: osasunerako hezkuntzaren eredu bat"	
CEP IBAI IKASTOLA LHI	13083			
		Act. B	Hizkuntzen curriculum HTB ikuspegitik	Prestakuntza
IES ANTIGUA-LUBERRI BHI	13085			
		Act. B	Ikastetxeko curriculum proiektua lantzen	Prestakuntza
		Acc. In..	Errobotak programatzen	
		Acc. In..	Gaitasun digitala marrazketa eta plastikan	
CEP HARRI BERRI - OLETA LHI	13253			
		Act. B	Zuzendaritza taldekoen mintegiak.	
		Act. B	Haur eta lehen hezkuntzako mintegiak	
		Act. B	Ikastetxean aholkularien jarraipena	

CURRICULUM BERRIARI, KONPETENTZIEI EDO EBALUAZIO DIAGNOSTIKOARI BURUZ 08/09 IKASTURTEAN PLANIFIKATUTA DAUDEN FORMAKUNTZA/BERRIKUNTZA EKINTZAK.

1.- IKASTETXEETAN EGINGO DIRENAK

IKASTETXEAREN IZENA	LANDUKO DEN GAIA(K)	NOREKIN (klastroa, Zuzendaritza taldea, batzorde pedagogikoa, mintegia...)	SAIO KOPURUA
ALTZA LHI	KONPETENTZIAK - METODOLOGIA EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	3 SAIO (BI ORDUKOAK)
AMARA BERRI LHI	<ul style="list-style-type: none"> - MATEMATIKAKO CURRICULUMAREN EZARPENA - DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA 	<ul style="list-style-type: none"> - MATEMATIKA IRAKASLEEKIN HH ETA LH (12) - KOORDINAZIO TALDEAREKIN (15) eta 2.ZIKLOKO IRAKASLEEKIN 	<ul style="list-style-type: none"> -7 (BI ORDUKOAK) - SAIO 2 (2 ORDUKOA)
AMASSORRAIN IKASTOLA LHI	DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	7/8 SAIO (BI ORDUKOAK)
ANTIGUA LUBERRI BHI	KONPETENTZIAK – METODOLOGIA-EBALUAZIOA	HIZKUNTZA ETA ESPARRU ZIENTIFIKO TEKNOLOGIKOKO IRAKASLEEKIN (60?) 2 talde	3 SAIO (BI ORDUKOAK) TALDE BAKOITZAREKIN, BERAZ 6 SAIO
ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA LHI	KONPETENTZIAK – METODOLOGIA-EBALUAZIOA	PEDAGOGIA BATZORDEA ETA KLAUSTROA	5 SAIO (ORDUTERDIKOAK)
ARANTZAZUKO AMA IKASTOLA BHI	EBALUAZIOA ETA DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA?	KLAUSTROAREKIN	SAIO 1 (BI ORDUKOA)
CATALINA ERAUSO LHI	DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	- 2 SAIO (BI ORDUKOAK)
HARRI BERRI OLETA LHI	DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	- 2 SAIO (ORDUTERDIKOAK)
HERRERA LHI	KONPETENTZIAK – METODOLOGIA-EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	5 SAIO (BI ORDUKOAK)

IKASTETXEAREN IZENA	LANDUKO DEN GAIA(K)	NOREKIN (klastroa, Zuzendaritza taldea, batzorde pedagogikoa, mintegia...)	SAIO KOPURUA
IBAI IKASTOLA LHI	<ul style="list-style-type: none"> - HIZKUNTZEN CURRICULUMA HTB IKUSPEGITIK - DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA 	<ul style="list-style-type: none"> - KLAUSTROAREKIN - KLAUSTRO KIDEEKIN. 	<ul style="list-style-type: none"> - 6/7 SAIO (BI ORDUKOAK - 2 SAIO (ORDUTERDIKOAK)
IGELDO LHI	KONPETENTZIAK – METODOLOGIA-EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	5 SAIO (ORDUTERDIKOAK)
IKASBIDE IKASTOLA LHI	KONPETENTZIAK – METODOLOGIA-EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	7/8 SAIO (BI ORDUKOAK)
INTXAURRONDO LHI	EBALUAZIOA, METODOLOGÍA ETA DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	3 SAIO (BI ORDUKOAK)
INTXAURRONDO HEGOA LHI	KONPETENTZIAK – METODOLOGIA-EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	5 SAIO (BI ORDUKOAK)
JAKINTZA IKASTOLA LHI	KONPETENTZIAK –EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	?
ZUHAIZTI LHI	INGELESEKO CURRICULUMA	INGELESEKO IRAKASLEEKIN	5 SAIO (ORDUBATEKOAK)
BELEN HLBHIP	HIZKUNTZEN TRATAERA BATERATUA	HIZKUNTZEN IRAKASLEEKIN (4)	5 SAIO (BI ORDUKOAK)
COMPAÑÍA DE MARIA HLBHIP	HIZKUNTZEN PORFOLIO EUOPARRA: EBALUAZIO TRESNA	HIZKUNTZEN IRAKASLEEKIN (12?)	4 SAIO (BI ORDUKOAK)
EKINTZA HLBHIP	OINARRIZKO KONPETENTZIAK (HURBILPENA)	KLAUSTROAREKIN	SAIO 1 (BI ORDUKOAK)
ESKIBEL HLBHIP	EBALUAZIOA ETA DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	2 SAIO (BI ORDUKOAK)
HERRI AMETSA HLBHIP	KONPETENTZIAK – METODOLOGIA-EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN ETA ETAPAKA	8 SAIO (ORDUTERDIKOAK)
INGLES HLBHIP	KONPETENTZIAK – METODOLOGIA-EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	5 SAIO (BI ORDUKOAK)
LA ASUNCIÓN HLBHIP	<ul style="list-style-type: none"> -KLAUSTROKIDE GUZTIEKIN BAINA ETAPAKA KOPURUA OSO HANDIA DELAKO -HIZKUNTZAKO PROIEKTUA 	<ul style="list-style-type: none"> -KLAUSTROKIDE GUZTIEKIN BAINA ETAPAKA KOPURUA OSO HANDIA DELAKO -KOORDINAZIO TALDEA – HIZKUNTZA IRAKASLEAK 	<ul style="list-style-type: none"> - 10 SAIO (BI ORDUKOAK) - 5 SAIO (BI ORDUKOAK)

IKASTETXEAREN IZENA	LANDUKO DEN GAIA(K)	NOREKIN (klastroa, Zuzendaritza taldea, batzorde pedagogikoa, mintegia...)	SAIO KOPURUA
LARRAMENDI HLBHIP	DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN (BI TALDE: HH-LH / BH)	2 SAIO (BI ORDUKOAK)
MARIA AUXILIADORA HLBHIP	KONPETENTZIAK – METODOLOGIA-EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	5 SAIO (BI ORDUKOAK)
MARIA REINA HLBHIP	DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	2 SAIO (BI ORDUKOAK)
MARIAREN BIHOTZA HLBHIP	DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	2 SAIO (ORDUTERDIKOAK)
MARY WARD HLBHIP	- KONPETENTZIAK – METODOLOGIA- EBALUAZIOA - ATZERRITAR HIZKUNTZA (curric.)	- KLAUSTROAREKIN - ALEMAN IRAKASLEAK	-5 SAIO (BI ORDUKOAK) -3 SAIO (BI ORDUKOAK)
NIÑO JESUS DE PRAGA HLBHIP	HIZKUNTZA PROIEKTUA	ZEHAZTEKE	ZEHAZTEKE
NUESTRA SRA. ARANZAZU HLBHIP	DIAGNOSTIKO EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	2 SAIO (BI ORDUKOAK)
SAN ALBERTO MAGNO HLBHIP	HTB (IDATZIAREN ULERMENA)	HIZKUNTZA IRAKASLEAK (15)	6 SAIO (BI ORDUKOAK)
SAN IGNACIO HLBHIP	HTB LHko 1.go zikloan	ZIKLOKO IRAKASLEEKIN (10)	7 SAIO (BI ORDUKOAK)
SAN JOSE HLBHIP	KONPETENTZIAK – METODOLOGIA-EBALUAZIOA	KLAUSTROAREKIN	5 SAIO (BI ORDUKOAK)
SAN PATRICIO HLBHIP	HIZKUNTZA KOMUNIKAZIORAKO GAITASUNA HTB IKUSPUNTUTIK	LHko HIZKUNTZA IRAKASLEEKIN	4 SAIO (BI ORDUKOAK)
SANTA TERESA HLBHIP	HIZKUNTZA TRATAERA BATERATUA ETA HIZKUNTZA PROIEKTUA	KOORDINAZIO TALDEAREKIN HIZKUNTZA DEPARTAM. rekin ETAPAK (HH-LH – DBH-BATX) KLAUSTROA	7 SAIO (ORDU TERDIKO SAIOAK)

IKASTETXEAREN IZENA	LANDUKO DEN GAIA(K)	NOREKIN (klastroa, Zuzendaritza taldea, batzorde pedagogikoa, mintegia...)	SAIO KOPURUA
SANTO TOMAS LIZEOA	BIGARREN HEZKUNTZAKO INGELESA ETA GAZTELANIA EBALUAZIO SISTEMA	ZEHAZTEKE	ZEHAZTEKE
BELEN –CIA MARIA-CATÓLICO SANTA MARIA (HIRURAK BATZEKO PROZESUAN DAUDE)	HHko PCCa (Dekretu berriaren hildotik)	HHko HIRU IKASTETXEETAKO IRAKASLERIA (35 IRAK)	15 SAIO (BI ORDUKOAK)
HHI/EPA BERGARA	KONPETENTZIAK ETA CURRICULUM BERRIA	KLAUSTROAREKIN	20 ORDU (AHOLKULARIAREN PRESENTZIA ZEHAZTEKE)
HHI/EPA TOLOSA	KONPETENTZIAK ETA CURRICULUM BERRIA	KLAUSTROAREKIN	15 ORDU (AHOLKULARIAREN PRESENTZIA ZEHAZTEKE)

OHARRA: Aipatutakoaz gain ikastetxe guztietan Diagnostiko ebaluazioa arautzen duen aginduari erantzunez, aholkulari bakoitzak frogaren inguruko informazio saio bat gutxienez eskainiko die bere ikastetxeei.

Oraindik ez dugu ikastetxe guztiekin itxi prestakuntzaren gaia, beraz litekeena da zerrenda hau luzatzea ikasturtean zehar.

2.- BERRITZEGUNEAK DITUEN ZONALDEKO MINTEGIETAN

MINTEGIAREN IZENA / ARLOA...	LANDUKO DEN GAIA(K)	SAIO KOPURUA	PARTAIDE KOPURUA (aurreikusten dena)
GAITASUNEN GARAPENA LAN PROIEKTUEN BIDEZ HH	<ul style="list-style-type: none"> -HHko Dekretua jorratu -Ikastetxeko Currículum Proiektua nola osatu -Gaitasunak eta HHko eremuen edukiak uztartu -Guzti hau, eguneroko praktikan, lan proiektuen bidez gauzatuz 	15	15
KONPETENTZIETAN ARDAZTUTAKO LHko CURRICULUMA (1. zikloa)	<ol style="list-style-type: none"> 1. LHko 1. zikloko edukiak, ebaluazio irizpideak eta adierazleak. 2. Oinarrizko konpetentziak. 3. Proiektuen diseinua. 	7	15
KONPETENTZIETAN ARDAZTUTAKO LHko CURRICULUMA (2. zikloa)	<ol style="list-style-type: none"> 1. Currículum berria eta konpetentziak: orokorrak zein oinarrizkoak (hausnarketa eta ariketak). 2. Hizkuntzen curriculuma eta Hizkuntza-Komunikaziorako konpetentzia: edukiak eta ebaluazio irizpideak. Europako Erreferentzia Markoa (hausnarketa eta ariketak) 3. Ingurune Natural, Sozial eta Kulturalaren Ezaguera eta Konpetentziak: edukiak eta ebaluazio irizpideak (hausnarketa eta ariketak) 4. Matematika eta Matematikarako Konpetentzia: edukiak eta ebaluazio irizpideak (hausnarketa eta ariketak) 	7	15

MINTEGIAREN IZENA / ARLOA...	LANDUKO DEN GAIA(K)	SAIO KOPURUA	PARTAIDE KOPURUA (aurreikusten dena)
	5. Beste arloetako curriculumak eta Konpetentziak: edukiak eta ebaluazio irizpideak (hausnarketa eta ariketak)		
Curriculum Ezberdinak (DC) eta Hezkuntza Berariaz Esku Hartzeko Taldeetan (PIEE) curriculumak lantzen	1-Partaideen arteko ekarpenak bultzatzea eta zalantzak argitzeko gune bat izatea 2- Oinarrizko konpetentziak eta irakasgaiak ezagutzea eta aztertzea 3-"Globo aerostatikoen garapena ilustrazioan" proiektu interdisziplinarra(giza-zientziak eta zientifiko-teknologiko eremuak) ezagutzea eta jorratzea. 4- Curriculum berriari egokitutako programazioak taldean adostea eta zehaztea 5- Denon artean baliabideak ezagutzea eta konpartitzea	8	4? (Oraindik irekia dago izena emateko epea)
TUTORETZA PLANA LHn CURRICULUM BERRIAREN MARKOAN	Iaz egokitutakoaren azterketa. - Tutoretza Plana Dekretuan. - Aurreko ikasturteetan egindako jarduera eta materialen aurkezpena eta azterketa. - Tutoretza Planaren 3. atala: ikasturtean zehar tutoretza ekintzen plangintza. - Tutoretza Planaren 4. atala: Tutoretza Plana ebaluatzeko irizpideak. - Elkarrizketak Tutoretzan. - Mintegiak sortutako gaiak.	8	9
ORIENTAZIO MINTEGIA	HEZKUNTZA DEKRETUA TUTORETZA PLANA	7	10

MINTEGIAREN IZENA / ARLOA...	LANDUKO DEN GAIA(K)	SAIO KOPURUA	PARTAIDE KOPURUA (aurreikusten dena)
	ORIENTATZAILEEN ESPARRUAK		
Zuzendaritza Taldeak: Oinarrizko Hezkuntzarako Dekretuari erantzunez	Oinarrizko Hezkuntzarako Dekretutik eratorritako erronkak: - Ebaluazio Diagnostikoa - Dokumentuak: IHP, IPC, HP, ... - Aldaketak kudeatzeko prozesuak / egitura ereduak. * ...	7	15
HIPI- Kulturatekotasuna	- Curriculum berria eta Hizkuntza konpetentziak - Hizkuntza konpetentziak eta (EEMB) oinarriz ikasle baten Norbanako Lan Programa baten eredu egitea. - Europako Erreferentzi Marko Bateratuan ikasleen portfolioa ezagutu	8 (Mintegiak saio gehiago izango ditu, 4 hauek gaiarekin lotura zuzena dutenak dira)	22
HHIko Zuzendaritzaren Funtzioa / La función directiva en los centros de EPA	Curriculun berria ezagutu eta sakondu beren edukietan	2	15
Musika Mintegia Bigarren Hezkuntzan	Curriculumaren atal ezberdinak: helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak	7/8	Otsailean hastekoa da, oraindik ez dute izenik eman.

3.- HITZALDIAK/IKASTAROAK

LANDUKO DEN GAIA(K)	EMAILEAK	ORDU KOPURUA
Konpetentzia digitala nola landu: Oinarrizko elementuak	VICTOR BERMEJO RAMON BARLAM FÉLIX SANTAMARIA	16 (Irailan egin da, 40 irakaslek hartu dute parte)
Europako Erreferentzia Markoa: B1 maila LHn	ANTTON PEÑALBA GOTZONE ELU	4 (Irailan egin da, 28 irakaslek hartu dute parte)
KONPETENTZIEN EBALUAZIOA ETA EBALUAZIO DIAGNOSTIKOA	JOSU SIERRA PACO LUNA NEUS SANMARTÍ	5 (Irailaren 26an egin da. Lurralde mailakoa. Gipuzkoako 300 irakaslek parte hartu dute)

Hitzaldiak/Ikastaroak ikastetxeetan eta Mintegietan egiten dugun lanaren osagarri kontsideratzen ditugunez, oraindik ez dugu hauen planifikazioa itxi. Lotu gabe badugu ere Angel I. Pérez Gómezekin harremanetan gaude kompetentzien inguruan zerbait lantzeko.

4.- BESTE FORMATU BATZUK

FORMATOA	LANDUKO DEN GAIA(K)	EMAILEAK, GIDARIAK...	SAIO EDO ORDU KOPURUA
MINTEGIA	Ikasketa eta Zerbitzu solidarioa (1)	ZERBIKAS FUNDAZIOA	10 ORDU (2 EGUN)

(1) Gure ustez kompetentzien garapenarekin lotura izan dezakeen gaia da, batez ere Gizarte eta hiritar kompetentziarekin (baina ez bakarrik honekin). Ez da guk antolatutako ekintza, baina bailarako hainbat eragileei gonbitea pasa diegu ulertuz jorratu nahi dugun gai honekin lotura duela.